

Kanalak

Komunikabideak eta banaketa

Bezeroekin komunikatzeko, gure web orrialdean aurkitu dezakezu gure telefono zenbakia eta posta elektronikoa. Horrela, zalantzak argitu ditzakegu mezuen bidez edo beharrezko bada telefonoz. Bertan, gure katalogora ere sartu ahal izango zarete erosketak online egiteko.

Sare sozialak oso indartsuak direla kontuan hartuta, kontu bat sortu dugu Tiktok sarean, publizitate-tresna gisa erabiltzeko. Modu informalagoan eta errazagoan harremanetan jartzeko eta bideoen edo beste formatu batzuen bidez proiektuan sartu diren berrikuntzak eta hobekuntzak erakusteko ere.

Bukatzeko, Ikea eta Leroy Merlin bazkideen bitartez, bere denda fisikoetan jar daitezke gurekin harremanetan edozein kudeaketa egiteko. Hauekin email publizitarioak eta inprimatutako publizitatea ere partekatuko dugu, gure produktua hobeto merkaturatzeko.

Bezeroekiko komunikazioa

Publiko heldua: Talde horrekin komunikatzeko eta saltzeko foma web-orria, sare sozialak, publizitate-emailak eta dendetako publizitatea bera izango litzateke.



Adin handiko publikoa: Talde horrekiko komunikazio- eta salmenta-foma nagusiki publizitate inprimatua eta aurrez-aurrekoa izango litzateke. Izan ere, pertsona horiek gehien erabiltzen dituzten aukerak direla uste dugu, nahiz eta, kasuen arabera, beste aukera batzuk ere erabil ditzaketen.

